

atera gorria!



bbk =

**BBK26=**

abantaila eta deskontu pila

www.bbk.es

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**beertn**

2005eko IRAILA  
80. zkia. DOAN

Anton Larrazabal  
Brigadistak  
Bizkaiko erlezainak



**Patxo Telleria**

*"Euskal antzerkia  
nahiko ondo  
kontsideratuta dago"*




## Pontoiko errota ondoan lixiba egiten

*Eulalia Abaituaren altxorrera jo dogu atzera be. Erretratu honetan, Pontoiko errota zaharra eta Ibaizabal dekogu begi bistan, eta ibarretan, andrak lixiba egiten. Sasoi hartan etxeko andreak garbilekuetara joaten ziren izarak eta gainerako arropak zaran baten batuta eta zarana buru ganean paratuta. Behar gogorra zan, zer esanik ez dago. Errota horren azken hondakinak 1983ko uriolen ostean galdu ziran. Gaur egun bertan zubia dago eta, apur bat gorago, Abusu ikastola.*

Bilboko Euskal Museoak argitara emondako 'Gure aurreko andrak' liburutik hartu dogu.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia .....	4	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Brigadistak .....	5	▶ Hezkuntza: Matrikulazio datuak .....	24
▶ Begoña eta euskerea: Anton Larrazabal ..	8	▶ Kirola. Bidaiariak .....	26
▶ Taldea: Bizkaiko erlezainak .....	10	▶ Odoriaga mendia .....	27
▶ Internet mahatsorri .....	12	▶ Sorgintxuloren liburua .....	28
▶ Elkarriketa: Patxo Telleria .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30
▶ Inkesta .....	19		

Dinostie honeik Bertonekoak hametik aurrera interneten be iminiko doskuezela geuzek leiduntako ta ikusteko, ta hau be iminiko ei dauriela. Da sasoi ixe da ze mundu guztidxe dabil internet gora da internet behera, da blogak, txatak, erreeseak, pebipeak da kristobendito guztidxe da Matzorridok ondiñokarren tarjetapostalan denboran. Ganera, Berton de balde dalez zer dotzu papeliu leidu edo interneten? Da seguruen jente gehidxenak internet biharien edo eskolan ibiliten dalez, biher egin edo estudiau beharrekoan segiduko daurie denborien galtzean, baie sikieran probetxuko zozer egingo daurie. Gehidxen bate eskolako umiek ze gero ta gehidxago ei dabilz euskeraz ikisten (aunke hau euskerie entenditeko karrerie egin behar ei de). Zenbet ta leku gehidxagotatik atakau posibidade gehidxago geuzek zabalteko gero!



Holan porrejenploan, baten bat gehidxagok jakin lei beran etzien azpidxen dekozela bost metroko estaziñoon besteko zuloa da egun beten etzie jantzan hasten bajako ba ez da estrañauko. Da iguel jente gehidxagok jakin lei Anton

Larrazabal nor zan ta zelango biher eleganteie egin zeuen bizi guztidxen ta errekonozimientu apur bet eginen jako behingoan. Ta beste askok jakin leidxe eztidxe ez dala menbrillotik ataraten da zelango beharra dekon da erliek ez direzela euli handidxe. Da beste batzuek ezetuko daurie Patxo Telleria Donostiko festibaliu edo Hollywooden premidxoan emon orduko. Da igul asko hasiko gara ingeruen dekoguzen etze zaharrieri aittuten ta egun beten baten batek botaten badeittuz zelangoak ixen ziriu akordauko gara, ta iguel inkluso asko aittuten badotzegu ez dira atrebiduko hain erraz botaten. Da bertoko batzuk zelau ibiliten direzen munduen zihher enredaten, da hareik Sorgintxulokoak ez dagozela enterrate ezta etzien entzerrate be... Da,....

Tire ba! Hau interneteko lahostidxe ixin littike ba! Da ganera hainbeste jaker, pirata ta kopilefagaz ondiñokarren gehidxago zabalten direz gauzek. Lastima interneten bakarrik sartuten garezela lagunakaz sinsorgadak botaten ibilteta ta olgetako. Bestelan...

**Firmatue:** Jakerrekipo terriblie (je, je, je...)

Porsierto, kopilef adiskresiño, da baten batek hobetuten badago hainbet hobeto!



# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre,  
48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura

**Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Eneritz Ibarondo,  
Nerea Aburto,  
Iratxe Ruiz,  
Unai Cuevas,  
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:  
Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M. de  
Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,  
Jose Otazua,  
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Arrate Diez  
LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98  
ALE KOPURUA:  
1.900

# ERREALITATERIK GORDINENERA BISITA

UDAKO OPORRAK ELKARTASUN BRIGADETAN  
EMAN DITUZTE MAHATSORRI BATZUEK

Testua: Iratxe Ruiz  
Argazkiak: BERTON



*Gehienok udako oporrak atsedean  
hartzeko erabiltzen ditugun  
arren, badira beste herri  
batzuetara joaten direnak berta-  
ko injustiziak eta errealtate  
gordinak ezagutzeko.  
Brigadistak dira eta behin etxera  
bueltatuta, ikusitakoa zabaldu egiten dute. Guri Palestinan eta  
Venezuelan izandako hamaika istorio kontatu digute hiru gazte  
mahatsorrik. Esperientzia gomendagarria bezain  
latza dela diote hirurek aho batez.*

Maitane Komite Internazionalistarekin jarri zen harremanetan. Kontakua Internet bidez egin zuen eta behin elkartarekin harremanetan jarri ostean prestakuntza eskoletara apuntatu zen. Palestina zuten jomuga, herrialde zaila. Tailerretan israelarren eta palestinarren arteko gatazka historikoz mintzatu ziren, hegazkinetik jaisterakoan aurkituko zuten errealitatea zein izango zen gutxi gorabehera aurretik jakiteko.

Euskal Herriko hamar gazte zihozen brigadan. San Fermin egunean alde egin zuten. Eta Tel-Avivera heldzean ez zituzten zezenik aurkitu, baina lau orduz aireportuan galdezka ibili zitzaizkien poliziak bai. "Atzeritiek helden den jendearekiko kontrola izugarria da", esan digu Maitanek.

Zisjordanian, Gazan eta Jerusalem egon ziren. Hotel eta ostatuetan egiten zuten lo, eta egunez hamaika bilera hango gizarte taldeekin. "Brigadetan joatea ez da oporretan joatea, konpromiso bat hartu behar duzu joan aurretik. Euskal Herria eta Palestinaren arteko elkartasun politikoa erdiestea zen gure helburua", diosku Maitanek.

Brigadako jendearen elkarbizitza ederto joan zela kontatu du, konplizitate xamurrak lotzen dituelako. Arrazoia, Palestinan ikusitako errealitate gordina: "Estatu sionistaren politika ondo eramaten dute israeldarrek eta palestinarren egoera penagarria da. Eurentzat eguneroko bizitza erresisten-

tzia da. Ez da hedabideek islatzen duten bizimodua".

"Esperientzia itzela" bizi izan zuten mahatsorriak hilabetez. Hala ere, aitortu du erritmo arina duela brigadarekin joateak. Maitanentzat bizi izan da kionena palestinarren berotasuna da: "Egoera latzean egon arren aurrera egiten dutelako, temple hori dutelako eta guri kristoren




Brigadistak Palestinan

kizu nondik joan zaitezkeen eta nondik ez. Gaza aparteko mundu bat da, kontzentrazio esparru handia da, oso itxia. Han egoera askozaz ere larriagoa da. Gazan emakume bat ezin da kaletik bakarrik joan", aitortu du.

Hala eta guztiz ere, tentsio une zailena 'checkpoint'ak ziren, kontrolak. Erregistroak eta identifikatzeko aginduak une oro. "Gogorrena Tel Aviv-en sartu eta alde egiterakoan egindako kontrolak izan ziren. Bueltatzerakoan manual batean zituzten galdera berak galdetu zizkiguten mila bider, itaun horien artean norbait ezagutu dugun, zer edo zer eman digun, leherkari bat eskaini diguten, non egin dugun lo... orduan erantzundakoaren arabera pegatina bat jartzen zizuten. Pegatinaren arabera hurrengo kontrolak zorrotzagoak izango ziren. Aireportuan lau ordu lehenago egon behar duzu!".

Irakurle, brigadetan joatea bururatu bazaizu jakin dezazun, Maitanek adierazi digun bezala, "ez dela oporretan joatea, lan handia egiten da. Gauza asko ikasten dira eta egoerak mugiarazten zaitu!. Helburua da han ikusitakoa hemen gure etxean azaltzea eta agerraraztea. Elkartruke bat da, herri euskaldunaren eta palestinarren arteko elkartasuna".

Esan bezala, brigadetan joan aurretik konpromiso bat daukazu, eta bueltatzerakoan beratu bete den erreflexionatu behar duzu. Palestinara joan



tratu eskaini zigutelako. Hemen, Hegoaldean, gorroto handiarekin bizi ginateke".

**LAU ORDU**

Euskal Herriara bueltan ekarri duen emaitzarik borobilena da "Estatu sionista israeldarrek duen eragina eta Palestina zein gaixorik dagoen". Leku arriskutsua da Palestina. "Kaletik joaterakoan bada-



Check-Point bat



Palestinar umeak

aurretik tailerra egin zuten, eta orain, urrian, beste bat egin beharko dute hamar gazte hauek. Bizi izan dutena beste brigadistei helarazteko edota jendeari ezagutzera emateko.

**VENEZUELAN ZE GIRO?**

Gaizka eta Alex mahatsorriek Venezuelara bidaia egin zuten uztailean. Sekula ez ei dute ahaztu behar. Aurretiaz bertan egondako lagun batek kontaktua eman eta birritan pentsatu barik hegazkina hartu zuten abentura bila. Caracasen Venezuelako Alberdi Komunistaren auzoan alokatu ziren, Urtarrilaren 23 auzoan, hain justu. Biek diotenez, delinkuentzia handia dago hiriburuan, eta askoz gehiago auzune horretan. Bertara ez da sartzen ezta polizia ere.

"Caracasen aurkitu genuen errealitatea oso latza da. Pertsonen arteko desberdintasunak begi bistan daude,

ekonomikoak gehien bat. Deigarri bezain gogorra da Petare auzoko bizimodua. Bertako gaztetxoek hamahiru bat urterekin armak erabiltzen dituzte. 'Malandros' esaten diete. Jendea hil ere egiten dute droga lortzeko edo lapurretetan. Hamazortzi urteko malandros bat oso zaharra da. Segurtasun eza itzela da, eta gainera, poliziak ustelkeriaz jokatu du. Ez da gauza arraroa taxi batean zaudela agenteek geldiaraztea eta lapurtzea!", azaldu digu Gaizkak.

Hala eta guztiz ere, bikote horrek bizi izan duen kapitulurik zailena akziozko filma baten gidoi baterako balio dezake. Valenciatic Chichivirichera autobusez zihozela beste 30 bat lagunekin, bidaiari bik pistolak atera eta ibilgailua geldiarazi zituzten. Ordu bateko amesgaiztoa izan zen. Gizonek autobusa leku ezkutuago bateraino eraman zuten eta aldean zituzten ondasunak eskatu zizkieten.

"Zorionez, ez zituzten gure motxi-

lak ikusi. Ordubete pasatxo egon ginen besoak goian eta beheera begira. Lapur batek nire belaunera botatzen zituen sakelako telefonoak eta diru dena. Urduri baino urduriago geunden. Azkenean autobusaren atzetik zetorren kotxean alde egin zuten".

**ALDARRIKAPENAK**

Abuztuaren 7an Inperialismoaren kontrako jaialdian egon ziren, mundu oso-tik joandako jendearekin batera. Hala-ber, lehenengo Batzar Bolivartararen parte hartu zuten, Simon Bolivar Koordinakundearekin zeudela. Brigadan zihozaren hamabost euskaldunekin egin zuten lana hurrengo izan zen: hedabidez hedabide joaten ziren Euskal Herriko gatazka politikoa eta egun-egoera ezagutaraziz. Autodeterminazioaren inguruko topalekuetan egon ziren, eta Chavezek Venezuelarako aberastasuna lortzeko aurrera daraman



Manifestazioa Caracasen

politikara gertutik ezagutu zuten. Mahatserrira bueltatu aurretik, herrialdetik txango luzea egiteko aprobetxatu zuten. Paisaia ikusgarriez gozatu zuten: oihanak, Caribeko urak, safariak, anakondak, pirañak, eta Salto del Angel famatua.

**Garraioak**

Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33


**Sugea taberna** Iturriaga, 92  
kazalatzkoak eta pintxo goxoak

**PRESOAK KALERA**  
**AMNISTIA OSOAI**

# BEGOÑA ETA EUSKERA

*2005eko uda amaitu berriak Anton Larrazabal eraman du berarekin. Mahatsorri horrek ordu asko eman zituen Begoñako errepublika zaharraren gaineko kontuak, agiri historikoak, baserriak eta eraikinak aztertzen eta jasotzen. Izan be, Begoñako errepublika zen bere debilidadea eta ederto erakutsi zuen BERTONen kolaboratzaile moduan egin zuen ekarpenetan.*

## ANTON LARRAZABAL IKERTZAILE MAHATSORRIA HIL DA



Gure irakurleek ondo baino hobeto dakitenez, egunokaz Euskal Museoan 'Begoña 1900. Errepublika eta Santutegia' izeneko erakusketa dago ikusgai. Argazki erakusketa da eta maiatzetik urria akabua arte egongo da zabalik. Bada, bertako arduradunek paratutako testuan beren-beregi eskertu zuten Anton Larrazabalen laguntza. Berarengana jo zuten datu batzuen bila eta bazter batzuk identifikatu ahal izateko. Normala da, berau zen horretarako pertsonarik egokiena.

Anton Larrazabal Txurdinagako Garaizar baserrikoa zen. Bera jaio zenean, orain dela hirurogeita hamabi urte, txakolindegia zen Garaizar. Haren aita Antolino Larrazabal zen. Antonek al baitari ikasi eta urte asko Nafarroan eman zituen, bere ogibidean. Kirola be asko gustatzen zitzaion eta, berbarako, beteranoen arteko atletismo lasterketan parte hartuta zegoen.

Begoñatik kanpo ibili bazen ere, ez zen herriaz ahaztu. Hori barik, penatuta ikusten zuen Begoñako kontu zaharrak zelán galtzen ziren. Izan be, historia bere pasioetako bat zen, batez be Begoña eta Bilboko kontuak.

### ERAKUSKETAK

Bere grina horrek beharrean hastera sakatu zuen eta datuak zein informazioak batzen ibili zen handik eta

berton

hemendik. Azken urteotan bizikletaz egiten zituen bere ikerkuntzetarako joan-etorriak. Helburu nagusietako bat baserriak izan ziren, Begoñako errepublika zaharreko baserriak hain justu. Larrazabalek baserri bakoitzaren gaineko fitxak egin zituen lortutako datuakaz -izena, lekua, bizilagunak,...- eta ahal izan zuen kasuetan argazkiak erantsi zituen.

Lan handia egin zuen, gaur egun gelditzen diren baserriak ez eze, lehengo sasoieta egonekoak be batu gura izan zituen eta. Horiek denak erakusketetan aurkeztu zituen jendaurrean, bere lanaren emaitzak herritarren esku uztearren.

Erakusketak ez ziren bere lana zabaltzeko bide bakarra. Anton Larrazabalek BERTONen esku ere laga zituen bere materialak eta sail honetan bertan eman genituen argitara. Gehien bat, Begoñako baserrien gaineko sorta batzuk plazaratu genituen.

Hala eta guztiz be, Anton Larrazabalen ikerketa lanak ez ziren baserrietara mugatu. Bertako dorre-



hauetatik gure oroitzapenik sentituena hainbeste gauzaren berri eman zigun gizonari eta, batez be, Begoñako errepublika zaharraren ondare historikoa salbatzeko hainbeste ahalegin egin zuen ikerlariari. Goian bego!

txe eta leinu zaharren gaineko datuak batu zituen: Zurbaran, Arbolantxa, Legizamon,... Euren atzetik, esate baterako, behin Extremadurara joan zen Zurbaran pintoreraren jaiotza agiria ikustearren.

Kontu faltarik ez zeukan Larrazabalek. Besteak beste, karlistadak eta Begoñako eliza be eduki zituen hizpide eta ikergai. Mahatsorrioren gauzeekin jarraituz, Begoñako erdara be ikertu zuen. Hain zuzen ere, horixe izan zen BERTONen, atal honetan hain justu, agertu zeneko azken aldia. 2002ko apirilko zenbakia izan zen, 43. zenbakia. Begoñako erdaran erabilitako euskal berben berri eman zuen.

Azken urteotan Nerbioi eta Ibaizabaleko zubien gaineko lan bategaz ibili zen. Lerro



**Halderapeho**  
euskal kultur gunea

[www.halderapeho.com](http://www.halderapeho.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



# ERLEEN ZAINDARIAK

Bizkaiko Erlezainen elkarteak Begoñan dauka bere egoitza

**Bazenekiten erlezaintza munduan erleei intseminazio artifisiala edo eta hazi-jartzea egiten zaiela? Hau ez da beti gertatzen, erreginak arazoak edukiz gero soilik egiten zaie. Bizkaiko erlezainen elkarteak Begoñan du egoitza eta erleen munduko kontuez arduratzen dira bertokoak.**

**Testua: Arrate Diez**  
**Argazkiak: Iñigo Azkona**

Bizkaiko erlezainen elkarteak 1983an sortu zen eta hasierako urteetan egoitza Bilboko Urkijo zumarkalean izan bazuten ere, orain dela hamabost bat urte Begoñara etorri ziren. Orain Zumalakarregi etorbideko 34an daude. Oraingoan haiengana hurbildu gara beraien zereginari buruzko eta oro har erlezaintzari buruzko informazio eske.

Egun seiehun eta laurogei bazkidek osatzen dute elkarteak, baina hauek ez dira denak bizkaitarrak, badirelako beraien erlauntzak Kantabriar, Burgosen zein Palentzian dituztenak.

Elkarteko kidea Jabier Larrina-

gak berak Urdaibain (Kortezubin) ditu erlauntzak eta Koldo Velasco Sopuertan. Biak teknikoak dira, arlo honetan profesionalak, eta elkarteaz arduratzen dira gehien bat.

Elkarteak erlezain munduko gauza gehienez arduratzen da: beharrezko produktuak saltzen dituzte, laguntza juridikoa eskaini, jendeari informazioa eman aldizkari baten bitartez, ikastaroak eman, hitzaldiak... Horrez gain, patologia mailan gaixotasunik balego Neiker instituturara eramaten dute azter dezaten. Jabierren esanetan "erlauntzak, argizariak eta erlezainak behar dituen material guztiak

merkeago erosten ditugu elkarteak, guk maiorista modura erosten baitugu. Seguru kolektibo bat ere egiten dugu gerta litezkeen arazoetarako. Arraroa da baina gerta daiteke erleren batek animalia edo eta pertsonen bat zizatzea. Izan ere, gertatu izan zaigu ere Lemoizen zeuden erlauntza batzuk norbaitek intsektizidekin hiltzea eta arazo hauek gero konpondu behar dira".

**EZTIRAKO**

Bizkaian erlezainak gehien bat ez tira dedikatzen dira baina badaude bestelako produktu eta lanak ere: erregina-jele (jalea real), propoleoa, erreginak ateratzea gero

saltzeko... Larrinagak esan duenez "badaude modu naturalean ernaltzen diren erreginak zein intseminazio artifizialaren bidez ernaltzen direnak. Erlamandotari semena kentzen diogu eta mikroskopio eta lupa handi batekin erreginari sartzen diogu xiringatxo batekin. Hau ondo egiten bada ehuneko ehunetan da efektiboa, erreginak inongo arazorik ez badu, noski."

Jabier Larrinagak atzerrian ikasi du intseminazioa egiten. Frantzia eta Polonia aldean ibili dira, besteak beste, erlezaintzari buruz ikasten. Jabierren ustez "ipar partean hemen baino profesionalagoak direla eta askoz ere gehiago zaindu dituztela erlauntzak".


**ERLEENTZAKO JARABEA**

Eztia lortzeko erlauntzak gogor eta erregina gazteak eduki behar dira. Sarritan gogor egoteko elikadura artifiziuala eman behar zaie. "Horretarako glukosa ematen diegu aparatu batekin, jarabe bat balitz beza-



horrek ur gehiago dauka eta erleek uste dute kanpoko nektarra dela, eta hala, kume gehiago egiten dituzte. Udaberrian eta udan estimulatzen ematen zaie eta udagoienean zein neguan berriz, ur gutxiago eta azukre kantitate handiagoa ematen zaie negua pasatzeko.

Bizkaian bi ezti uzta mota daude, bata kostaldeko eukalipto globulos izenekoa eta bestea millalora izenekoa. Hala ere, jendeak Burgos aldera egiten du txilarraren atzetik. Beraz, hiru ezti mota jasotzen da: eukalipto, millalora eta txilarra. Bizkaian ezta da gehien lantzen dena argizariarekin batera. Propoleoa, polena, eta erregina-jele aldiz, etxerako izaten da, batez ere.



la", argitu digu. Glukosa eman ahal zaie bai erreserba modura negua pasatzeko zein estimulatzen. Azken

**VARROA AKAROA**

Varroa akaroa da erleek izaten duten gaixorik ohikoenak. Zabaleran milimetro bat eta erdi du eta luzeran milimetro batekoa da, gutxi gora behera. Hau harraparia da eta erleen gainean jarriz erle barrua zurrupatzen du eta erlea deformatu egiten da. Asiatik etorri den akaroa da eta erlauntza batetik bestera doa. Gaitz hau kontrolpean dago. Beste etsai bat "loque amerikano" izeneko bakterioa da baina hau ez da hain ohikoa. Jabier Larrinagak zehaztu duenez, "horrek ez du zerikusirik eztiarekin, erleen gaixoak dira eta pertsonengan ez dute eraginik". Bizkaiko erlezainen elkarteak aldizkari bat kaleratzen du eta hainbat ikastaro eskaintzen ditu, beraz, informazio zentroa ederra da erlezaintzari buruz kontu gehiago jakin nahi duenarentzat. Hurbil zaitezte!

**santutxuko herriko taberna**

Ilurriaga 96

Gosari bereziak: Kaheta + patxoa 1,50 €

Euskal Herria AURRERA!!

**Garaizar**

JESUS GARINDEZ, Nº 10

Tel: 94 47 33 25 - GARAIZAR - BILBO

**Agapi**

Dekorazioa eta eskaiola

Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuek

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1. 1 ezk

Tlfnoa: 944336916 -Sakelekoa: 651709114

SANTUTXU - 48006 BILBO

ERTONZUNGUJUGU

ASAPALA ELKARTEA

12 ATRAS ADELANTE DETENER ACTUALIZAR PÁGINA PRINCIPAL AUTORRELLENO IMPRIMIR CORREO

Dirección: <http://www.asapala.org/>

ASAPALA EUSKARA ELKARTEA

2005.eko Irailaren 27, asteartea

AGENDA

- Yoga tailerra (2005/10/27)
- Masaje tailerra (2005/10/17)
- Aritz Gorrotxategi Irakurlearen tartea (2005/10/26)

Agenda ikusi

ELKARTEAREN FOROA

LOTURAK

- [www.topa...](http://www.topagunea.org/)
- [www.berb...](http://www.berb...)
- [www.kafe...](http://www.kafe...)
- [www.zenb...](http://www.zenb...)
- [www.bilb...](http://www.bilb...)

Lotura guztiak

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**Berton**

Argiñe Aurteneche

"Auzoko jaiek lanbide profesionalek zabalitzen dute"

Izena: Berton  
Maiztasuna: Hilabetekaria  
Zenbakia: 78 (2005/07/01)

ELKARTEA

Aurkezpena  
Nortzuz gara?  
Zer egiten dugu?  
Kultur eskaintza  
Euskara praktikatzeko arduerak  
Euskarazko jarduerak  
Berton ondarearen zabalpena  
Komunikazioa eta hedabideak  
Emaiguzu zure berri!

URTEKO JARDUERAK

2005

ALBISTEGIA

Berri nagusiak  
Haurrak  
Kultura  
Euskaldun berriak  
Gazteak

ARTIKULOAK

# BERTONEK INTERNETERAKO SALTOA EGIN DU

Iraileko zenbakia sarean egongo urriaren 1etik aurrera

**BERTON** aldizkaria interneten ere egongo da irakurgai urriaren 1etik aurrera. Mahatsorri guztion errebistak bere atal nagusiak sarean lagako ditu munduko bazter guztietatik edonork edonoz gure kontuen berri eduki dezan. Helbidea, [www.asapala.org](http://www.asapala.org), Asapala euskara elkartearekin auzolanean egin dugu eta.

Testua: Berton

Aspaldiko asmoa zen. Lehenengo zenbakiaren azala interneten jarri genuen 1998an, egizue kontu. Orduan ez zen posible izan gehia-

go egitea eta urte asko joan dira gure aldizkariaren edukiak sarean paratu arte. Azken hileotan, Asapala euskara elkartearekin batera,

proba batzuk egin ditugu eta gure 80. zenbakiak nobedadea ekarri du: paperean ez eze, interneten be irakurgai egongo da.

**URRIA 2005**

PRAGA-BUDAPEST 499,00 Euro  
PRAGA-VIENA-BUDAPEST 599,00 Euro  
ISTAMBUL 384,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net  
**Izargi Bidaiak**


GRUPO STAR  
www.ibiltari.com

Burriaga, 69  
Tel. 94 473 00 45  
Fax 94 412 07 28  
48004 SANTUTXU - BILBO

**KAIKU**

Munduko Herrien Etxea

Arsuaga 1 Santutxu



ADI Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

ASESORIA FISCAL, COMERCIAL, LABORAL, JURIDICO, MERCANTIL

**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**

Internautak [www.asapala.org](http://www.asapala.org) helbidea sakatu ezkerro, besteak beste, BERTON aldizkaria topatuko du bertan. Azken zenbakietako eduki nagusiak aurkituko ditu, 74. zenbakitik (otsailekoa) hasita. Urriaren 1etik aurrera iraileko zenbaki hau ere egongo da ia bere osotasunean irakurlearen esku.

Atalik atal, elkarrizketa nagusia, erreportajeak, argazki zaharra, historiako kontuak, kultura,... denak egongo dira sarean. Testua ez eze, argazkiak be topatuko ditu irakurleak.

Dena dela, irakurleak badauka BERTON aldizkaria interneten topatzeko beste bide bat: [www.topagunea.org](http://www.topagunea.org) Horixe dugu euskara elkarten eta herri aldizkarien federazioa eta BERTON bertako bazkidea da, beste hogeita hamarren bat hedabiderekina batera. Gainera, atari horrek aldizkari eta agerkari guztien arteko bilaketak egiteko aukera ematen du. Oraingoz gutxi dira egunean-egunean dauden hedabideak baina laster baten Topaguneko aldizkari asko bertan egoteko behar dabilta. Asapalaren web gunean, bestalde, Santutxu-Txurdinagako Euskara Elkartearen proiektuak, deialdiak, ideiak eta agenda topatuko dituzte internautak. BERTONentzat oraingo hau beste urrats bat baino ez da. Interneten era-

Atzera Aurrera Detener Actualizar Págin principal Autorrelleno Imprimir Correo

Dirección: [http://www.webcaldera.com/\\_eusker/ElkarTea.htm](http://www.webcaldera.com/_eusker/ElkarTea.htm)

Martes 27 de Septiembre de 2005

ELKARTEA

La Caldera entsaio gela, Otxarkoagako Auzo Etxean dagoena, 1988.ean sortzen da, Otxarkoaga, Txurdinaga eta Santutxun Rod: musika loturik dauden gazteak: biltzeko asmoarekin. Idei eta gogo asko: gazteak: baina diru gutxi: oal.

Udaletxeko gela bakarra izan da geurea, BilboRod: sortu arte, horrela talde anitz izan ditu barne Bilbon zer esatea izan zutenak: edo momentuan dutenak.

Gaur egun La Caldera-n zortzi talde: entsaiatzen dute, bai distritu bere: oal: zein Bilbo: beste distritu batetako: oal.

Entsaiatzeko lokala eskaintzea ez da nahiko: oal, eta horretarako web hau gitea aukeratu dugu bertan dauden taldeak: ezagutarazte: oal. Batez ere, web hau, kontsulta bezala erabiltzeko sortzen dugu, edonork: taldeen datuak: eskura izate: oal.

Gure ideia web honetan ez da talde edo ell: artearen historio luzea kontatzea ezta gutxiago ere balorazioetan sartzea, hemen aur: eztu nahi duguna, soilik, diretorio bat da.

Taldeak: aur: ezten ditugu, egiten duten musika estiloa, taldeak: osotzen duten partaideak: eta beraien: nola kontat: tatu

Gutako askorentzat gure aisialdirako alternatiba bat bezala hasten dena, bizitza aurrera eramán ahal izate: oal fanbide bat bihurtu daite: e, edo maila guztietan hazten lagunduko gaituen bol: azio baten.

Azken batean, web honel: in, talde gazteei laguntzea eta ateran bat ireki eta beraien musika ezagutzera emotea espero dugu

Hiokuntza Aldatu

ELKARTEA

LA CALDERA BILBAO

Mapa

erosi cd-a

bilera areagotu gura dugu eta, bide horretan, aldizkari guztiak -80 zenbakiok eta hemendik aurrerakoak sarean eskegi nahi ditugu. Aurrerago, interneten bestelako erabilpenak be zabaldu gura genituzke.

**MAHATSNAUTAK**

Ez gara, ezta hurrik ere, internetera ailegatzaren lehenengo mahatsorriak. Asko dira gure inguruko instituzio, elkarte eta norbanakoak sarean presentzia daukatenak. Google bilatzailean Santutxuko kontuak bilatu ezkerro, Santutxuko merkatarien orria agertuko zaigu lehenengoan artean. Helbidea hau da <http://www.santutxubilbao.com/euskera/default.htm> eta,

besteak beste, auzoko argazki zahar sorta bat eskaintzen dio bisitariari.

Santutxurekin jarraituta, Sorgintxuloren [www.sorgintxulo.com/webgunea](http://www.sorgintxulo.com/webgunea) ere azalduko zaigu. Berria da eta oraingoz aukera gutxi dauka baina badu lotura bat web gune zaharrenekin. Eta kirol arloko beste gune bi be agertuko zaizkigu: alde batetik, Santutxuko Lehoiameak Athleticen nesken taldeko peña <http://comunidades.kzgunea.net/SantutxukoLehoiameak/EU/default.htm> helbidean. Berton, besteak beste, BERTONen Irantzu Castrillo jokalaritari eginiko elkarrizketa daukate eskegita. Eta bestetik, Santutxuko futbol taldearen orria (<http://www.san->

## MASTER ETA ADITU TITULUA

Informazio eta Komunikaziorako Teknologia, Formaziorari Aplikatuta

**Helburua.** Helburua du profesionalak prestatzea, ikastetxeetan lan egiterakoan gai izan daitezzen Informazio eta Komunikazioaren Teknologia era pedagogikoan erabiltzeko.

**Nori zuzendua.** Hezkuntza Zientziak, Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia, Irakasle, Informatika, Soziologia, Humanitateak-Enpresa arloetako unibertsitate tituludunentzat.

**Metodologia.** Masterra oinarritzen da Autoformazioan eta Teleformazioan: masterraren %15 eskola presentzialak dira; gainerakoa, Internet bidezkoa. Azken horretan, ikasleek izango dute tutoretza etengabea.

Eusko Jaurlaritzak homologatua.

Telefonoa: 943-71.41.57

[www.huhezi.edu](http://www.huhezi.edu)





tutxufc.com/) klubaren gaineko informazio guztiarekin.

Santutxu utzi eta Otxarkoaga berbaren bila hasi ezker, bertako gazte topagunearen webgune zaharrak eta berria agertzen dira: <http://club.telepolis.com/ogaztetopagune/otxarkoaga/> Auzoaren gaineko informazioa, argazkiak,... Zelan ez, Peña Pa Ya konpartsaren lekua ere azalduko da, euren umore eta dinamita guztiarekin: <http://www.pa-ya.biz/> Eta auzoko elkarte handiekin jarraituta, La Caldera musika elkarteak be ekainean zabaldu zuen bere web gunea, for eta guzti. Hemen topatuko dituzue: [www.weblacaldera.com/phpBB2/](http://www.weblacaldera.com/phpBB2/)

Eta Txurdinaga sakatuta? Guk Txurdinaga Behekoa institutuaren orria aurkitu dugu: <http://www.ibehekoa.euskalnet.net/euskera/aurkezpena.htm> Bertan barruko kontuak, eraikinaren eta ondoko parkearen gaineko datuak, eraikina egin zeneko argazkiak, foroa, sariak,...

Gainerako auzoei dagokienez,

Begoñaren kasuan basilikaren web gunea aitatu behar dugu. Parrokia-ko bizitza, historia,... etab aita 'sakristia birtuala' ere, agiriak internet bidez eskatzeko aukerarekin. Hemen aurkituko duzue: <http://www.basilicadebegona.com/index2.htm> Eta Campo Volantinen bila joan ezker, ingelesez munduko 800 eraikin ikusgarri batzen duen web gunean agertuko zaigu, Zubizuriri esker. Helbidea hauxe da: [www.greatbuildings.com/buildings/Campo\\_Volantin\\_Footbridge.html](http://www.greatbuildings.com/buildings/Campo_Volantin_Footbridge.html) Harrigarria da Calatravaren zubiak interneten duen oihartzuna, beste bazter askotan topatuko duzu eta. Euretako bat, alajaina, [www.typicallyspanish.com](http://www.typicallyspanish.com)

Ikastetxeen arloan gero eta gehiago dira web gune indartsuak dauzkatena: Uribarriko Artxandape ([www.artxandape.net/](http://www.artxandape.net/)), Begoñazpi ([www.begonazpi.net/](http://www.begonazpi.net/)), Kiri-kiño ([www.kirikiño.com](http://www.kirikiño.com)) eta Karmelo ([www.karmelo.com](http://www.karmelo.com)) ikastolak -azken horrek euren aldizkaria pdf formatuan eskaintzen du- edo Cen-

tro Formativo de Otxarkoaga <http://www.otxarkoaga.net/>, besteak beste.

Bestelako lekuei dagokienez, bada posta zerrenda bat -santutxutarrak- helbide honetan: [www.euskalerria.org/taldeak/taldea.cfm?id=110](http://www.euskalerria.org/taldeak/taldea.cfm?id=110). Hamabi kide ditu baina dinamika gutxi. Euskara hutsez. Azken mezua duela urtebete baino gehiagokoa da. 2002ko urrian sortu zen. Blogak -interneten idatzitako egunkari pertsonalak- ere badira gure artean. Azkenaldion interes handia piztu du Josu Martinez mahatsorriak bere 'Bloga, Bloga marinela' rekin (<http://kaioluma-zikinez.blogspot.com/>).

Olegario Makarrovski izenarekin sinatzen du eta literatur kontuak darabiltza gehien bat.

Beste blog honetan (<http://oblojeiro.blogspot.com/>) BERTONeko hirugarren orriko Mahatsorriaren testuak lapurtu eta interneten ipintzen hasi den hacker mahatsorri baten ibilerak aurkituko dituzue, guk eragozten ez badugu.

Amaitzeko, beste webgune batzuk aitatuko ditugu. Argazkilari mahatsorri bi, lehenengo: Txema Camara ([www.txemacamara.com/](http://www.txemacamara.com/)) eta BERTONeko Iñigo Azkona ([www.euskalnet.net/inigoazkona/](http://www.euskalnet.net/inigoazkona/)).


Elektrotunak be web gune umoretsua dauka (<http://www.elektrotuna.com/>), baita Cantharellus mikologia taldeak be (<http://comunidades.kzgunea.net/Cantharellus/EU/default.htm>). Santutxuko jai batzordeak bere lekutxo dauka (<http://www.santutxukojaiak.org/>) eta inork Korrika 14 gure auzoetatik pasatu zeneko argazkiak ikusi gura izan ezker, jo beza hona: <http://www.korrika.org/argazkiak/thumbnails.php?album=14&page=3>

e  
l  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a

# PATXO TELLERIA

## "Euskal antzerkia nahiko ondo kontsideratuta dago"

*Funikularraren alboan bizi da egun, Patxo Telleria, bilbotar horrek bere bizitzaren erdia baino gehiago Mahatsorriko auzo ezberdinetan eman duen arren. Antzerki idazlea, aktoretzat baino gehiago gidoilaritzat jotzen du bere burua. Aktore atipikotzat ere. Izan ere, duela hamar urtetik hona berak idatzitako, edota bere gertuko lagunek idatzitako antzezlanak baino ez ditu antzeztu. Maskaradatik 'Euskara sencilloaren manifestu'ra ibilbide luzea eginda dago. Eta urrian, beste urrats bat, 'Larruhaizetara' estreinatuko du eta.*



Testua: Itxaso Perez  
Argazkiak: Iñigo Azkona

**urretxindorra**  
megadenda

9'30etatik  
20'00etara

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparragirre, 26 (48011 Bilbo)      [urretxindorra@megadenda.com](mailto:urretxindorra@megadenda.com)  
Tfnoa: 94 4240228      [www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**EUSKAL ESKOLA**

iven a aprender euskara!  
todos los horarios y niveles

**Euskarak euskaldun egiten baitzaitu**

P.Pernet,9 Santutxu      Arbidea,21 Txurdinaga  
4731460      4117656





#### Zertan dabil orain Patxo?

Orain bi antzezlanetan hain zuzen ere. Alde batetik, Gasteizko Nazioarteko Jaialdian 'Sonata segundo batean... eta piku' antzezlanaren azken emanaldia izango da. Eta orain gabiltza Mikel [Martinez] eta biok 'Euskara sencilloaren manifestua' antzeztzen. Hori ere hondarretan dago. Mikel eta biok beste istorio berri bat prestatzen ari gara: 'Larruhazetara'.

#### Zelakoa izango da lan berri hori?

Formatu berdineko obra bat da. Formatu txikikoa, umorean oinarrituta, gu bion umorea, bikotearena, ez? 'Ez Dok Hiru' bikotearena. Gure umore berezia, orain arte landu duguna. Eta horrez gain Jokin Oregiren beste

obra batekin nabil. Jokinek testu bat sortu du, 'Ezin dut egia esan' ('Las dos verdades' erdaraz). Hori prestatzen ari gara eta azaroan estreinatuko dugu. Mikelekin urrian izango da estreinaldia.

#### Istoria apur bat egin dezagun: Maskaradatik Ez Dok Hiru bikoteatrora... 'segundo batean.. eta piku!'

Buenoo! Maskaradan sartu nintzen 1984an gutxi gora behera, eta han hamar urte edo egin nituen. Obra pilo bat egin nuen...

#### Zuk idatzitakoak ere tartean...

Ez, ez, ez. Maskaradan nengoenean oraindik ez nuen idazten. Hor ez genuen autoreekin lan egiten norma-

lean. Sortze lanak izaten ziren, eta sortze prozesu horretan denok hartzen genuen parte. Iguar batzuek joera gehiago zeukaten eszenografiak egiteko, edo jantziak egiteko... Ni normalean letra kontuetara lerratzen nintzen errazago, ez? Gidoietara. Beharbada bai, hor lehenengo esperientzia izan zen gidoigile gisa. Hor egin genituen istorio batzuk: 'Gastibeltzaren karabinak'. Nik gidoian parte hartu nuen lehenengo obra 'Marxkarada' izan zen, Marx anaiei buruzko istorio bat. Beste pertsonaia batzuk bazeuden baina... Batez ere Mikelek eta biok egiten genuen.. Eta handik busti zitzaigun apur bat Marx anaien umorea eta harrez gero absurdoa erabili genuen. Gure lehenengo obra muntatu

genuen biok bakarrik geundela, eta hori izan zen 'Monstruo sakratuak'. Gero nik Maskarada utzi nuen beste gauzak ezagutzeko... Merkatuan sartu nintzen, freelancer...

#### Telebistan ere ibilia zara...

Bai, telebistan, antzerkian...

#### 'Vaya semanita' ren umorea berria dela dirudi, baina zuok aspalditik landu izan duzuen umore bada, ezta?

Bai. Guk 'Irrikitan' saioa egin genuen. Hori 'Tentazioa' produktorearen proiektu bat izan zen. Eneko Olasagasti, Karlos Zabala eta koadri-la horrek proposatu zidaten niri aurkezpenak eta gidoiak egiteko, eta horixe egiten genuen. Maskaradatik

irteteak lagundu zidan jende berria ezagutzen eta gainera nire burua pixka bat aurrera ateratzen. Horretatik hasi nintzen idazten, eta bueno, batez ere teatroa idatzi dut. Lehenengo obra Maskaradatik irtetean 'Torito bravo' izan zen. Profesionalki bi pertsonekin nago lotuta batez ere, bata Mikel Martinez eta bestea Aitor Mazo. Hirurok gara Maskaradako kide ohiak. Aitorrekin gauza asko egin ditut: 'Torito bravo' eta 'Virus' egin genituen nire testuekin, konpainia bat osatu genuela. Gero, konpainiak ezin izan zuen jarraitu arazo burokratikoengatik. Dena den Aitorrekin jarraitu izan dut lanean. Izan ere, Mikelek eta biok 'Kontenedore baten istorioak' egin genuenean Aitorrek zuzendu zuen, Jokin Oregirekin batera. Berdin gertatu da 'Sonata segundo batean... eta piku' obran, biak aritu dira zuzentzen ere.


#### Botxotik irten barik obra asko, ezta?

Nik uste dut Bilboko talde bat dagoela -hor dago ere Tartean konpainia, Pello Gutierrezek daramana, Maskaradako kide ohi hori ere-, multzo bat teatroaren inguruan, Maskaradatik irten direnekin. Sakabanatu gara,

eta bakoitzak bere proiektuak ditu baina egia esan nahiko egiten dugu elkarrekin.

#### Teatroa eta euskara... sencilloa?


Bueno, ez dugu bakarrik euskaraz egiten, baina esate baterako, Mikelek eta biok egiten dugun "Euskara sencilloaren manifestua" eta orain darabilgun beste hori euskaraz sortuak direnez gero itzulezinak dira. Lehenengo ezin da itzuli, gaiagatik eta kontestuagatik, eta oraingoa ere ez. Orain egiten ari garena euskaraz sortua da, hain zuzen ere gure ezaugarrietako bat hizkuntzarekin jolaste hori delako. Obra guztian hizkuntz joko asko tartekatu ditugu. Guk euskarari atera nahi diogu zukua eta euskararekin ere umorea egin. Kasu honetan ez dugu 'euskaldunberritasuna' lantzen. Giza harremanak, sexua, gizon-emakumeen arteko harremanak, batez ere sexu harremanak, baina ez hauek bakarrik. Baina guztia euskararen ikuspuntutik. Orduan, zentzu horretan, obra horiek ezinezkoak dira gaztelaniaz ematea. Baina esate baterako, alderantziz ere gertatu zitzaidan. 'Torito bravo' idatzi nuen eta hori ezin izan nuen euskarara eman. Bueno, bai,



itzul zitekeen baina grazia guztia galduta. Eta 'Kontenedore baten istorioak' aldiz elebiduna izan da, 'Sonata segundo batean...eta piku' bezala. Gertatzen dena da, hemen Euskal Herrian gutxienez, oso ezagunak garelako Maskaradatik etorri garelako eta betidanik euskaraz aritu izan garelako. Hemen normalean beste konpainiei gertatzen zaie beti bi hizkuntzatan prestatzen dituztela obrak, baina gaztelaniaz gehiago egiten dute euskaraz baino. Eta guri, alderantziz gertatzen zaigu. Guk ateratzen badugu euskaraz eta erdaraz, emanaldi gehienak euskaraz ematen ditugu. Hemen. Gero, kanpora ateratzen bagara, ba ez.

### Obra kopuruari dagokionez, nahiko antzerki egiten da? Eta zenbat ikusten dugu?

Beitu, gauza bat gertatzen da. Lehenago, duela 25 urte, errazago bizi ginen antzerkitik. Baina horrek ez du esan nahi antzerkia txartoago dagoenik. Alderantziz. Hobeto bizi ginen talde gutxi ginen eta sortzen zenuen funtzio bat eta ehun emanaldi egiten zenituen, jendeak eskatzen zuelako. Igual Euskal Herrian hiru obra zeuden eta herriz-herri joaten ginen. Gaur egun obra bat egiten duzu eta hogeita hamar emanaldi egiten baduzu, kontentu egon zaitezke. Zergatik? Dozena bat edo hogeita obra eskainita daudelako eta antzerki gehiago dago, herri gehiagotan programatzen da, ... Hau da, antzerki gehiago antzetzten da, baina klaro! Gutxiago tokatzen zaio konpainia bakoitzari. Konpetentzia larria dago, baina ona da profesiorako. Zure burua behartu behar duzu produktu duin bat egiten, hola ez bada, ez duzulako saltzen. Lehen igual erdi-purdiko lana egin zitekeen eta



bueno, besterik ezean hori kontratatzen zuten. Gaur egun konpetentziak hori du ona, ezta?.

### Dena dela, obra bakarren baten izena entzuten da kalean... zergatik?

Bai, klaro! Antzerkia ez da iristen komunikabideetara. Iristen da 'Kutsidazu bidea, Ixabel' juxtu-juxtu igual momentu zehatz batean, edo gaztelaniazko 'Cocidito madrileño'. Badira beste obra batzuk, eta gainera kontutan hartu behar da obra asko ez direla hemen egiten. Euskal antzerkia nahiko ondo kontsideratuta dago. Hemengo produktuak oso ondo saltzen dira kanpoan kalitatez nahiko onak direlako. Guk, esate baterako, zarata askorik egin gabe 'Euskara sencilloaren manifestua'rekin 120 emanaldi egin ditugu. Antzerkia ez da fenomeno soziala.

### Zarata askorik egin barik zuk zeuk ere hainbat sari jaso edota finalisten artean geratu zara... Jendeak kalean ezagutzen zaitu?

Ba, 'Max' sarietan bi nominazio eta beste batean, saria. Gero, zinean ere, 'Alma'ren lehenengo edizioko saria jaso nuen Aitor Mazorekin batera egindako testu batengatik. Jendeak kaletik ni ezagutzen nauen? Ez dakit, ez dakit. Beno, teatroatik ez da jendea erraz ezagutzeara. Batzuetan bai, konturatzen zara. Gertatzen dena da hemen jendea oso, zera dela, ez? Baina konturatzen naiz toki askotara joaten naizela eta euskaraz zuzentzen zaizkidala. Azpeitian baldin bazau de normala da, baina beste toki batzuetan...eta pentsatzen dut igual kasu batzuetan baten batek agian ezagutzen nauela telebistatik, baina bueno, aspaldi.

## Zortzi galdera labur

Antzezlan bat: "Glups!", Dagoll Dagom-ena

Liburu bat: "La conjura de los necios"

Kanta bat: Ruper Ordorikaren "Berandu dabilta"

Aktore bat: Katherine Herpburn

Leku bat: Billano Irla

Hondartza ala mendia?: Itsasoa

Janari bat: ufa, asko! Arrain zopa

Kirol bat: piraguismoa


bertin

Zelan ikusten duzu Gobernuak tabako eta alkoholaren gainean zerga gehiago jarri izana osasun arloko defizita estaltzeko?



LEONOR  
(TXURDINAGA)

NI ERRETZAILEA NAIZ. TXARTO IKUSTEN DUT. EGIA DA JENDEAK HORRELA GUTXIAGO ERREKO DUELA BAINA GOBERNUK INPORTANTZIA GUTXIKO KONTUETAN DIRUTZAK GASTATZEN DITUZTE, EUREN SOLDATAK ESATE BATERAKO, ETA GAUZA INPORTANTEETARAKO EZ DAGO DIRURIK.




JOSEBA  
(OTXARKOAGA)

ZERGA BADA, ONDO. BAKOITZAK BERE GAI-XOTASUNAK ORDAINDU BEHARKO DITU. ETA NI ERRETZAILE NAIZ ETA EDAN ERE APUR BAT EDATEN DUT.



BELEN  
(TXURDINAGA)

ZENTZUA BADAUKA, EZTA? LOTURA BAT BADAGO GAUZA BIEN ARTEAN. NIK ONDO IKUSTEN DUT.



ELEDER  
(ZAZPI KALEAK)

NIK ONDO IKUSTEN DUT ZERGA HORIEK IGOTZEA HORRELA OINARRIZKO BESTE PRODUKTU BATZUK MERKEAGO IZATEKO. JANARIAK ETA...



KRISTINA  
(SANTUTXU)

EZ DAKIT. ALDE BATETIK TXARTO BAINA BESTE ALDETIK IGUAL ERABAKI ONA IZAN DAITEKE.

BORJA  
(GETXO)

TXARTO. ZER ESANGO DUT BA? DENOK IZAN GARA IKASLEAK ETA. BAINA BESTE ALDETIK IGUAL HOBETO.

ESTHER  
(TXURDINAGA)

ALDE BATETIK ONDO, HORRELA IGUAL JENDEAK GUTXIAGO ERREKO DU ETA. BAINA BESTE ALDETIK TXARTO. TABAKOA GARESTITZEA MEDIKU ATENTZIOA ORDAINTZEKO KONTRAESANA DA, EZTA?

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Larreagaburuko lur azpiko meategia eta Miribillakoak antzekoak dira

Espainiako Gobernuaren txosten batek Miribillako lurren egonkortasuna zalantzan jarri du

Espainiako Gobernuaren txosten batek Miribillako lurren egonkortasuna zalantzan paratu du, lur azpiko meategien egoera dela medio. Eusko Jaurlaritzaren beste txosten batek, oster, Miribillakoak eta Larreaga-

burukoak (Mina del Morro) antzekoak direla nabarmendu du. Lakuako gobernuko adituek abandonatutako meategien gainean etxerik ez eraikitze gomen datu dute.

Espainiako institutu geologiko eta meatzariak (IGME) 2004ean emandako txostena irailan argitaratu dute. Txostenak Miribillako Malaespera meategi zaharra hartu zuen ikergai, Cavosa enpresak 2003an meategian hondakinak botatzeko baimena eskatu eta gero. Bada, institutu horretako adituek nabarmendu dutenez, Miribilla auzoko etxe berri gehienak lur azpiko meategien gainean daude. Malaespera meategiak hiru pisutako galeriak ditu eta horiek guztiz abandonatuta daude. Euretari-rik bi urez beteta ei dagoz. Hau guztiau baieztatu ostean, txostenaren egileek etxeen azpiko lurren egonkortasuna zalantzan jarri dute.

Eusko Jaurlaritzaren beste txosten batek



Eusko Jaurlaritzak egindako planoan Larreagaburu eta Miribillako meategiekin

Eusko Jaurlaritzaren txostenak dakarren planoaren arabera, lur azpiko meategi hori Larreagaburu edo Mina del Morro poligonoko etxe berrien alderdian dago. Zehatzago esanda, inguru horretan mila bat etxebizitza berri egin ditu Eusko Jaurlaritzak berak azken urteotan.

### GOMENDIOAK

2004ko txosten hori Industria, Merkataritza eta Turismo sailak egin du, "Autonomia Erkidegoaren lurraldean abandonatuta dauden metze egituretako arriskuen analisia" izenburupean. Bertan hitzez hitz idatzi dutenaren arabera, abandonatutako meategien kasuan, "balizko arriskua handiagotu egin daiteke gainean edo inguruan eraikinak egin ezker".

Gomendioak be eman dituzte txostenaren egileek. Besteak beste, lur azpiko meategien gainean etxerik, lantegirik edo autobiderik ez egiteko gomendatu dute. Eta zer edo zer egitekotan, "arina-go ganorazko txosten bat osatu behar da benetako egoera eta balizko ondorioak zeintzuk diren jakiteko".



Larreagaburu (Mina del Morro) eta Miribilla ortofoto baten

jaso duenaren arabera, Miribillako lur azpiko meategiak eta Larreagaburukoak (Mina del Morro) "antzekoak" dira. Izan ere, Mina del Morron meategi mota bi ustiatu zituzten. Alde batetik, zeruari zabalik -galeria barik- zulatu zituztenak. Horrelako bi jasotzen ditu txostenak alderdi horretan, bat Abusu ikastolaren eta kainuetako pasealekuaren artean eta bestea Larreagaburun. Lur azpiko meategiei dagokienez, bakarria egon ei zen Larreagaburun bertan.

## Castañoseko merkatua auzo-etxe bihurtuko du Bilboko Udalak

Gaur egungoen gainean beste solairu bat altxatuko dute beiraz estalita

Castañoseko merkatua alderdi horretako auzo-etxe bihurtuko du Bilboko Udalak. Horretarako erreforma lanak egingo ditu eraikin horretan eta beirazko beste 'bolu-

men' bat paratuko dio gaur egungo estalkiaren gainera. Sotoak be egingo dizkiote eta, horrela, 544 metro koadrotik 1.250 metro koadrora pasatuko da.

Castaños edo Begoñaibarrako merkatuak beheko eta lehenengo solairua dauka gaur egun. Denera, 544 metro koadro erabilgarri. Bilboko Udalak auzo-etxe atondu gura du bertan baina espazio askoz be gehiago beharko luke. Horretatik, lur azpiko sotoak eta estalki gainean beirazko beste 'bolumen' bat egin nahi dute udal arduradunek.

Horrela egingo balitz, 1.250 metro koadroko azalera lortuko lukete. Auzo-etxe horrek, besteak beste, areto nagusia, hirugarren adinekoentzako aretoa, tailer bi, batzar gela, ume eta gazteentzako liburutegia eta eskal txokoa edukiko du.

### ERAIKIN HISTORIKOA

Bilboko Udalak ez du jakinarazi ez eperik ezta aurrekonturik be. Edozelan be, proiektuak badauka gainditu beha-



rreko langa bat. Castañoseko merkatua eraikin historikoa da eta Bilboko Hirigintza Plan Nagusiak B mailako babes berezia ematen dio, bigarren mailarik altuena hain zuzen. Horren ondorioz, auzo etxea egiteko proiektuak kontuan hartu beharko ditu Ondare Batzordeak emango dituen irizpideak.

Izatez balio handiko eraikina da merkatu hori. Ricardo Bastida

arkitektoak diseinatu zuen 1905ean garbitoki gisa. Estilo modernistan egin zuen eta Castaños eta Muxika Butron kaleen arteko kantoian eraiki zuten. Geroago, barrualdea aldatu zuten garbikua barik azokarena egiteko. Castañosekoarekin batera, Bastidak San Mames kalekoa diseinatu zuen. Azken hori orain dela urte batzuk aldatu zuten: aurrealdea baino ez zuten mantendu, haren ostean etxe berri bat eginez.

### AUTO BAKO EGUNA, SANTUTXURA.-

Aurtengo nobedadea izan da Bilboko Udalak egindako 'Bilbo nire auto barik' egunean: Gran Via kalea ez eze, Santutxuko Karmelo be trafikorako zarratu eta egun osoz oinezkoentzat bakarrik egon zen erabilgarri. Autoen lekuan, umeentzako olgetak eta adin guztietako oinezkoak nagusitu ziren.





## BEGOÑAKO ANDRA MARI EGUNA.-

Abuztuaren 15eko erromeria egunean jendez lepo bete ziren Begoñako elizako bazterrak. Urtero lez, ehunka lagun hurreratu ziren basilikara goizeko lehenengo orduetatik. Eguerdian milaka ziren inguruan batutako erromesak. Euren artean, Bilboko alkate Iñaki Azkuna. Alkateak ezin izan zuen dantzarik egin, belauneko lesio bat zela medio.

## KONPARTSEK GOIARI EUTSI DIOTE ASTE NAGUSIAN.-

Adituek diotenez, azken urteotako Aste Nagusirik multzotsuenetako bat izan da aurtengoa. Hala ere, hortxe nabarmendu dira gure auzoetako konpartsak: Uribarri, Otxarkoagako Aixe-Berri eta Peña Pa Ya, Zurbaranbarriko Kaixo... Argazkian, Peña Pa Yakoak Ibaizabaletik gora Bilboko 'meka'ra noiz ailegatuko zain.



## JUSTUGUNE, MAHATSORRION HITZORDUA.-

Beste urte batez, Arbolantxako Goikoetxe baserria lehenengo eta Tetuaneko landa gero, Justuguneko erromeriaz busti ziren abuztuko lehenengo zapatuan. Peña Pa Ya konpartsa- ren eskutik, ehunka lagun hurreratu ziren egun pasa polit bat egitera eta antzinako tradizioetarik bat suspertzera.

## MASAJE ETA YOGA IKASTAROAK.-

Lehenengo ikastaroaren arrakastaren ondoren, Asapala euskara elkarteak bigarrenez masaje eta yoga tailer bana antolatu ditu. Begoñako auzo-etxean emango dituzte eskolak eta eta urriaren 17an hasiko dira. Biak ala biak maiatzera arte luzatuko dira; yoga tailerra barikuro emango dute eta masaje tailerra astelehenetan. Informazio gehiago gura duenak, Asapalabarrin dauka.



## BERBALAGUNA, ATZERA BE MARTXAN.-

Euskaraz nogaz egin ez daukatenei aukera emateko proiektua da Berbalaguna. Euskaldunak eta euskalduntze prozesuan elkartzen ditu euskaraz egiten hastea errazago izan dadin. Aurten hirugarren urtea da eta nahi duenak Asapalara edo AEKko euskaltegira jo dezake.

## URIBARRIKO JAIK 05.-

Egunokaz ospatu dira Uribarriko aurtengo jaiak. Urtero bezala, Bakailao txapelketa Abasolo Txakolindegian egin dute. Guztira bost partaide baino ez, baina kalitatea barra-barra marmita guztietan. Epaimahaia Moskotarrak konpartsa- kide bik osatu dute. Lehengo saria Uribarriko Lopategik eraman du. Argazkian, hirugarren saria jaso duen kazola eta sukaldari gaztea, Ibone Fernandez.



# IKASLE BERRIEN ARTEAN D EREDUA DA GEHIEN HAZI DENA

Testua: L. Albarez  
Argazkiak: BERTON



Briñas eskolako umeak dantzan

**Egunokaz hasi da kurtso berria gure eskoletan. Urtero lez, ume belaunaldi berri bat heldu da ikasgeletara, hiru urteko umeak hain zuzen. Aurten bi nobedade ekarri dituzte. Alde batetik, sein kopurua hazi egin da, nabarmen. Bestetik, D eredu euskaldunak gorakada polita hartu du. Hala Begoñako errepublika zaharreko auzoetan nola Bilbo osoan, ume gehienek euskara hutsez ikasiko dute.**

Aurten ere euskara hutsezko irakaskuntza aukeratu dute hiru urteko ume mahatsorri gehienek gurasoek. Horrelaxe eman dute jakitera Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak eskaintako datuek. Zehatzago esan-

da, Begoñako errepublika zaharrean 507 dira D ereduaren ikasteko egindako aurre-matrikulak. Iaz baino 48 gehiago, hain zuzen ere.

Hazkunde polita eta orokorra izan da, gorakada auzo guztietan

igarri da eta. D da matrikula gehien batu dituen eredu Otxarkoaga-Txurdinaga barrutian. Uribarri eta Begoñako (Santutxu) barrutietan, ostera, B eredu gailendu zaio. Hala ere, barruti bi horietan aurreko urtee-

## Hiru urteko umeen aurrematrikulak Begoñako errepublikan eta Bilbon

Eredu\urte	Mahatserrria				Bilbo		
	2002	2003	2004	2005	2003	2004	2005
A eredu	60	45	35	33	281	221	206
B eredu	355	389	399	403	1.160	1.201	1.163
D eredu	469	479	459	507	1.158	1.149	1.301

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila.

tan baino aurrematrikula gehiago jaso ditu euskarazko ereduak. Datuok erakusten dutenez, euskara hutsezko eskolek indar itzela daukate sare publikoan.

Notizia ona da berez, jakina, euskaltzaleontzat, are gehiago kontuan hartuta azken urte biotan euskarazko ereduak matrikula kopuruak zertxobait motelduta egon direla. Baina datu gehiago behar dugu errealitatea zein den ongi ulertzeko. Alde batetik, aurten hiru urteko ume kopurua hazi da Mahatserrria (943), iaz baino 50 gehiago. Beraz, joerak zeintzuk diren jakiteko portzentajeei errepara-

elebidunean, iaz baino lau gehiago. Esan legez, oraindik ere nagusi da Uribarri eta Begoñako barrutietan.

Azkenik, A eredu erdaldunaren desagertze prozesuaren beste atal bat ikusi dugu. Denetara 33 izan dira erdara hutsez ikasteko izena emandako umeak, iaz baino bi gutxiago. Berez amata arte eutsi egingo diotela ematen du, hala ere.

### BILBON D EREDUA NAGUSI

Bilbo osoko datuei begiratu ezker, D eredu euskaldunaren gorakada ikusgarria da. Hiru urteko ume guztietarik 1.301 (%48) euskara hutsez

ek aspaldian lepoa eman ziotelako. Irailean 206 ume baino ez dira A ereduaren hasi. Eskola erdaldunak azken urte biotan bere matrikulen %27 galdu ditu. Edozelan be, ezin ahaztu X eredu be badagoela -alemaniar ikastetxea- eta bertan 47 ume berri hasi direla.

### ESKOLA EZ DA NAHIKOA

D ereduaren emaitzak azken urteotan onenak badira ere, hala euskalgintzatik nola irakaskuntzatik bertatik zabalduzko mezuak ezin bazterrean laga. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak maiatzean jakinarazi zituen

### Hiru urteko umeen aurrematrikulak barrutika

Eredu\urte	Uribarri				Otxarkoaga-Txurdinaga				Begoña			
	2002	2003	2004	2005	2002	2003	2004	2005	2002	2003	2004	2005
A eredu	23	3	0	0	33	40	35	33	4	2	0	0
B eredu	170	172	179	170	63	81	71	74	122	136	149	159
D eredu	136	143	144	159	233	250	228	244	100	86	87	104

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila.

tu behar diegu. Euskara hutsez ikasiko duten hiru urteko umeak %54 dira. Igoera bai, iaz %51 izan ziren eta, baina oraindik ere ikasleriaren erdia baino apurtxo bat gehiago baino ez. Lan handia dago, beraz, oraindik ere eginkizun arlo horretan.

Gainerako ikasleak non ikasiko duten? Bada, ia denak B eredu elebidunean (euskaraz eta erdaraz). Eredu horrek itzal handia dauka sare pribatuan, bertan A eredu ordezkatu baitu. Guztira 403 ume mahatsorri hasi dira aurten irakaskuntzan eredu

hasi dira ikasten irailean. Azken urte biotan ez bezala, gehiago dira B eredu elebidunekoak baino. Iazko datuekin alderatuta, 152 ume gehiago eman dute izena D ereduaren.

Eredu elebidunak, ostera, galerak eduki ditu. Sein gehiago egonda ere, aurrematrikula kopurua 1.201tik 1.163ra jaitsi da. Beraz, aurten hiru urteko bilbotar umeen %43 B ereduaren bilduko da.

A eredu erdalduna, ostera, burua altxatu ezinik dabil. Aurten ere matrikula kopurua murriztu zaio, guraso-

datuak aspaldiko kezka baiezatzera etorri ziren: A ereduko ikasleentzako inork ere ez zuen euskara proba erraz bat gaitzitu; B ereduko artean, hirutik bik kale egin zuten; eta D ereduko ikasleentzako heren batek ere huts egin zuen. Beraz, argi gelditu zen hiru ereduetatik D eredu dela umeek euskara ikasteko biderik egokiena baina ez da, inondik ere, nahikoa. Berreuskalduntze prozesua ezin da eskolaren lepoan bakarrik utzi. Sektore askoz be gehiagoren inplikazioa ezinbestekoa da.

## PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA IKASTAROA

Derrigorrezko eskolak emateko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta LHn

Ikastaro honek helburua du oinarrizko formazioa ematea didaktika eta psikopedagogia eremuetan, bigarren hezkuntzan lan egin nahi duten lizentziadunei.

Beharrezkoa Didaktika Espezializazio titulua lortzeko, eta ezinbestekoa Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolak emateko.

Eusko Jaurlaritzak homologatua.

Telefonoa: 943-71.41.57



www.huhezi.edu

## Edurne Pasabanek hitzaldia emango du Begoñako udaltegiko 'Bidaiarien txokoa' zikloan

*Urrian zehar bidaiek hartuko dute protagonismoa Begoñako auzo-etxean. 'Bidaiarien txokoa' izeneko zikloak proiektzioak, erakusketak eta hitzaldiak tartekatuko ditu datorren hilean zehar. Besteak beste, Edurne Pasaban mendigoizalea, Josu Iztueta bidaiari ezaguna eta Juan Pablo Arriaga abenturazalea etorriko dira euren ibileren berri emateko*

Testua: **J. Larrazabal**

Bigarren urtez jarraian, Begoñako auzo-etxeak bidaiariak hartuko ditu ardatz nagusitzat udagoienean. Astero-astero, bidaiekin estu lotutako pelikula bana proiektatuko dute eta hitzaldi bana egingo dute. Azken horiek guztiak ikusentzunezko muntaien laguntzaz egingo dituzte.

Hizlari zerrenda polita batu dute aurtengo ziklorako. Lehenengo astekoa -urriaren 6an- Josu Iztueta esku galdituko da eta euskaraz izango da. Iztuetak 'Nairobiarrak: Milioi bat kilometro lur azaletik' izeneko berbaldia emango du. Tolosar bidaiariak 25 urte eman ditu munduan zehar hara eta hona eta 'Nairobiarra' bidaia agentzi bereziaren sustatzailearik bat izan zen. 'Nairobiarra' autobusa edo mudantza kamioia zen eta 80 eta 90. hamarkadetan mundu osoa zeharkatu zuten bidaia alternatiboak eginez. Urte guzti haietako abenturak eta argazkirik ederrenak ekarriko ditu Iztuetak.

Bigarren astean bidaiariak bilbotarrak izango dira. Mikel Arredondo eta Aitzol Alzibarrek 'La vuelta al mundo por once caminos' hitzaldia emango dute. Biek ala biek bizikletaz egin dituzte milaka kilometro eta behin Hegoamerikako bazter batean elkar ezagutu ondoren elkarrekin egin dituzte hamaika espedizio. Urriaren 13an kontaktuko dituzte kontuok.

Abenturak be ez dira hirugarren astean faltako. Jose Pablo Arriagaren ardura izango da hori. Arriaga markinarra da eta ogibidez egurrez altzariak egiten dihardu. Baina ahal duen bako-



Edurne Pasaban

tzean txaluparen bat hartu eta badao munduan barrena osteratxo bat egitera. Kayaken bidaia itzelak eginda dago baina oraingoan iaz belaontziak hasitako bidaia hartuko du hizpide. Izan ere, Lekeitiotik abiatu eta Afrikara buelta osoa ematera joan zen, bera bakarrik. Senegalen zegoela barkuak hondora jo zuen baina Arriagak ez zuen etsi eta lehorretik bidaia jarraitu zuen Buena Esperanzako lurmuturreraino. Urriaren 20an kontaktuko du istorio osoa.

Zikloa ixteko Edurne Pasaban gonbidatu dute antolatzaileek. Tolosar mendigoizaleak 'Aztarnak' izeneko hitzaldia emango du. Zortzi milako gehien igo den emakumezkoa da Pasaban, zortzi egin ditu eta. Azkena, aurtun zapal dutako Nanga Parbat. Bere gaztean, hainbeste espedizio eta bidaia eginda dago. Hitzaldian, bere zortzi milakoez gain, Euskal Herria be eduki-ko du berbagai. Hitzordua urriaren 27an jarri diote Pasabani.

### PELIKULAK

Zikloaren osagarri gisa eta Tular elkar-teak antolatuta, astean behin proiektzioak emango dituzte. Esan legez, film guztiek bidaiekin lotura estua daukate. Hona zerrenda: 'La boda del Monzón' -urriak 5-, 'Suite Habana' -urriak 11-, '2001 espazioko odisea' -urriak 19, euskaraz-, eta 'El dirigible' -urriak 26-.

Hala hitzaldiak nola pelikulak Begoñako auzo-etxean -kiroldegiaren ondoan- izango dira, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita. Gainera, hiru erakusketa paratuko dituzte Begoñako auzo etxean. Lehenengo hamabostaldian Sergio Garciaeren argazkiak ipiniko dituzte ikusgai. Bigarrenean, oster, Felix Iñurrategi fundazioaren 'Baltistan' argazki erakusketa eta auzo-etxe-ko liburutegiko bidaiei buruzko liburuak jarriko dituzte.

## ODORIAGA (1.245 M.) GARRASTATXU (BARANBIO)

Baranbiora joateko, Bilbotik Murgiara doan bidetik abiatuz, Baranbioko azken etxeetara heltzen garenean taberna bat dago eta bertan autobus geltokia ere. Ezkerrerantz zementuzko errepide bat iriteten da. Hortik igoko gara eta apur bat geroago bidegurutze batekin topo egingo dugu. Zuzen doanak Baranbio Goikora eramango gaitu. Horregatik, guk eskumakotik jarraituko dugu Garrastatxuraino.


Baseliza ondoan dagoen aterpe edo taberna batetik eta horma ondotik jaistean, pinudi batera sartuko gara.

Pinudi hau zeharkatuz, beste pista batekin elkartuko gara. Pista hori baselizatik irten eta hormaren kontra jarraituz, baserri batera helduko gara eta ondoren gure bidearekin egingo du topo. Aurreraxeago Baranbio Goikotik datorren pista ikusiko dugu (15').

Pista berberetik jarraituz, pago batzuk daude eta apur bat geroago etxola handi bat.

Aldapa txiki bat igotzean, alde guztietatik ikusten dira pistak, baina gu zuzen igoko gara bizkarretik. Oso gogorra da aldapa hori. Pista horretatik lehen bidegurutzeari jaramonik egin gabe jarraituz bigarren bidegurutzea ikusiko dugu. Apur bat geroago eskumarantz joko dugu pista leun batetik eta hiru pago ondoan dagoen borda ikusi arte joango gara.

Apur bat geroago beste pista (Altubetik datorre-



na) batekin aurkituko gara. Hori hartuz, lehen ezkererantz eta gero biragune handi bat eginez Nafakorta mendia eta Aranako Harria pasatuz, eskumarantz igoko gara.

Nahiz eta pista horrek ikur zuri-gorriak eduki ez dira beharrezko tontorra lortzeko.

Igoera hau bi ordutan egin daiteke.



**IRUDIA SORTZEN DUGU**  
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro  
Telefonoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@mavegalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
GERMÁN BERGARETXE

GABRIELARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 03/9/97



Santutxuko poteo gunean

# 'AMETSEN BARATZA': GAZTETXEI BURUZKO HAMAIKA BEGIRADA

SANTUTXUKO GAZTE ASANBLADAK LIBURUA  
PLAZARATUKO DU ABENDUAN



**Liburua Sorgintxulo itxi zuteneko urteurrena bete behar denean argitaratuko dute, eta gaztetxeen mugimenduaren inguruan egindako hainbat idazle, marrazkilaria eta argazkilariren lanak bilduko ditu. Bere salmentarekin jasotako diruaren zati bat Sorgintxuloko 78 auzipetuentzat izango da.**

Testua: Nerea Aburto / Argazkiak: Iñigo Azkona / BERTON

Abenduaren 16an urtea beteko da Sorgintxulo gaztetxea itxi zuteneko lehenengo urteurrena. Gaia berriro ere plazaratzeko eta jendea mugiarazteko asmoz, gaztetxeen inguruan sortutako lanen bilduma bat egin nahi du Gazte Asanbladak. Josu Martinez Gazte Asanbladako kideak halaxe dio: "Liburua gaztetxearen itxiera gogoratzeko aitzakia polita izan zitekeela bururatu zitzaigun, berriro ere gaztetxeen gaia pizteko modu bat baita. Gainera, liburuarekin jasotzen ditugun irabaziak gure artean dauden 78 auzipetuentzat izango da".

Liburua Durangoko Azokan aurkeztuko dute, eta bertan, zenbait idazle, marrazkilaria eta argazkilarik gaztetxei buruzko euren ikuspegi arte lanetan isladatuta aurkituko

ditu irakurleak. "Nahiko liburu anitza izango da. Momentuz heldu zaizkigun testuak nahiko ezberdinak dira euren artean eta egile bakoitzak bere erara heldu dio gaiari. Batzuk Sorgintxulon oinarritu dira, beste batzuk euren herriko gaztetxean eta beste batzuk gaztetxasunari edo munduaren ikuspegi alternatibo buruzko testuak aurkeztu dituzte."

## HAMAIKA LAGUN

Idazleak biltzeko lanetan Julen Gabiriak lagundu die Santutxuko gazteei. Eginiko deialdian gaia gaztetxeak edota okupazio mugimendua zela adierazten zitzaizen idazleei eta gehienez bost orrialdetako testu bat igortzeko eskatu. Jasotako lanen artean gehienak ipuinak izan arren, poema eta ber-

**Dordoka**  
TABERNA  
Pza. San Martín de la Ascensión  
SANTUTXU

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**Kafe**  
Mañari  
Médico M. Pedro Cortés, 9  
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

tsoek euren txokoa izango dute ere. Momentuz baieztatutako idazleen artean Itxaro Borda, Unai Elorriaga, Julen Gabiria, Harkaitz Cano, Sonia Gonzalez, Patxi Zubizarreta eta beste asko daude.

Marrazkilaria eta argazkilariek biltzeko lanetan Santutxuko Adur Larrea eta Alain M. Urrutia aritu dira. "Euskal Herri osoko egileak izatea nahi genuen, eta lortu dugula uste dut. Bakoitzari testu bat egokitu diogu eta gehienak orain dabilta lanean", esan digu Larreak. Euren laguntza eskaini dutenen artean Asisko Urmeneta, Tasio, Mattin, Conny Beyreuther edo Erramun Landa daude.

Liburuan badira parte hartzen duten hainbat mahatsorri ere. Batzuk euren idatziekin (Urtzi Urrutikoetxea, Asel Luzarraga, Juanra Madariaga edota Igartza beka irabazi berri duen Uxue Alberdiren kasuak adibidez) eta beste batzuk euren marrazki eta argazkiekin (Iñigo Azkona, BERTO-Neko argazkilaria, Itsaso Madariaga, Unai Bergara, Alain M. Urrutia edota Adur Larrea).

Jasotako erantzuna ona izan dela aipatzen dute Martinezek eta Larreak eta egileek eskaini duten dohaineko laguntzaz gain eurretari askok egindako iradokizunak eskertzen dituzte: "Juanra Madariaga eta Lutxo Egiak izenbururako proposamen batzuk bidali zizkiguten (azkenean Santutxuko



## ERREZITALDIAK

Abenduan, gaztetxearen itxieraren urteurrenarekin bat, liburuaren aurkezpena egingo dute, lehenengo Bilbon eta gero Durangoko Azokan. "Gure asmoa, Durangon aurkezteaz gain, Euskal Herriko gaztetxeetatik liburua aurkezteko zirkuitu bat egitea da. Formatoa, Bihotz Bakartien Klubeko Gotzon Barandiaranek proposatu zigan eta liburuko testu eta marrazki zein argazkiei musika erantziz errezitaldi bat antolatzean datza. Bertan, Santutxuko Gazte Asanbladako gazteek parte hartuko lukete testuak irakurriz, eta gero, leku bakoitzean, bertako egileek ere parte hartuko lukete."

Liburuak 200 orrialde bat izango ditu eta bertan, Josu Martinezen hitzetan, gaztetxei buruzko hainbat begirada ezberdin eskainiko dira. "Benetako liburu koral bat aurkeztuko dugu. Bertan, ia bilatu barik, genero, adin, jatorri edota tendentzia ezberdinetako egileak bildu ditugu eta honek balioa gehitzen dio lanari: gaztetxeen gaiak gizartearen politikariet agertu nahi dutena baino ikuspegi zabalago bat duela erakusten du."



Gazte Asanbladak Josu Martinezek proposatutako "Ametsen baratza" aukeratu du izenburu gisa; Julen (Gabiria) asko inplikatu da ere eta Asier Serranok errezitaldietan musika jotzeko bere burua eskaini du."

Liburua Elea argitaletxeak kaleratuko du. "Hasieran guk editatzea pentsatu genuen baina hainbeste jende horrek duen arriskuez ohartu eta gero argitaletxe baten bila hasi ginen. Julen Gabiriak argitaletxe txiki batekin egiteko gomendioa egin zigan eta hurrengo egunean Elea liburua egiteko prest zegoela esan zigun." Liburuaren maketazioaz Adur Larrea eta Alain M. Urrutia arduratuko dira eta hitzaurrea eta epilogoak Santutxuko gazteren baten esku egongo dira.

**GOJIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

**TELEFONOAK:**

**630 08 09 38**

**659 45 16 22**

# horoskopoa

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Ai ene, ai ene... hagineko miñe... maitetxoañe!!! Zuk dekozun bekokia...

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Burugogor famea dekozue baina azkenean, bihotzeko azukre koskorak diñoena egiten dozue, zintzo-zintzo.

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Ez dakit zenbat gauza barri hasi behar dozuzan orain... Hasitakotik ezer amaituko bazendu!!!

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Etzeko behar denak zuk egiten badozuz, alboko horrek ez dau ezer egiten jakingo, kontuizu...

**Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Ez dakit kargutu zaran baina zure inguruko jentea aborreziduta dago zure oporretako kontuakaz. Torrevieja ez da hainbesterako...

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Oindino hondartzara joan lei... Kanarietara joateko dirua euki ezker!

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Txori batek konta dostena egia bada, baten batek esplikazino asko emon beharko ditu, tunante hori!

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
A zelako ziztada zeurea! Makina bat lagun itziz dozuz minduta.

**Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Uda amaitu izanak badakar albiste onik: loradun alkandora negargarri horiek erantziko dozuz sikan...

**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Aitite baten moduan bizi zara: beharrik egin barik, antxineko batallitak behin eta berrriro kontaten, gobernua kritikaten, obrak bijilaten eta hamabost minuturo komunera. Hoba garagardea gitxiago edaten badozu...

**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Zuk bai uda ona! Ez sinisteko gero! Badaezpada, ez konta inori, ez dabe sinistuko eta...

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Egin kasu geuri. Aurten helburuak lortuko doguz eta, behar bezela ospatuko dogu. Edo, ze arraio, behar baino hobeto!

# agenda

## URRIAK 6

JOSU IZTUETAREN HITZALDIA.  
EUSKARAZ. 'BIDAIARIEN  
TXOKOA' ZIKLOAN. BEGOÑAKO  
AUZO ETXEAN. 19:30EAN.

## URRIAK 6

JABIER MUGURUZA.  
KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIA.  
22:00ETAN.

## URRIAK 11

BEGOÑAKO ANDRA MARIEN  
ERROMERIA. EGUN OSOAN  
ZEHAR BASILIKAREN  
INGURUAN.

## URRIAK 11

ZEA MAYS. KONTZERTUA. KAFE  
ANTZOKIA. 22:00ETAN.

## URRIAK 13

MIKEL ARREDONDO ETA  
AITZOL ALZIBARREN  
HITZALDIA. 'BIDAIARIEN  
TXOKOA' ZIKLOAN. BEGOÑAKO  
AUZO ETXEAN. 19:30EAN.

## URRIAK 20

JOSE PABLO ARRIAGAREN  
HITZALDIA. 'BIDAIARIEN  
TXOKOA' ZIKLOAN. BEGOÑAKO  
AUZO ETXEAN. 19:30EAN.

## URRIAK 22-23

RUPER ORDORIKA.  
KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIA.  
22:00ETAN 22:30EAN.

## URRIAK 26

ARITZ GORROTXATEGIK  
'KEAREN TRUKE' NOBELA  
AURKEZTUKO DU. ARBIDEAKO  
EUSKALTEGIAN. 20:00ETAN.  
ASAPALAREN IRAKURLEAREN  
TARTEA.

## URRIAK 27

EDURNE PASABANEN  
HITZALDIA. 'BIDAIARIEN  
TXOKOA' ZIKLOAN. BEGOÑAKO  
AUZO ETXEAN. 19:30EAN.

♥ Euskera praktikatu gura duzu, baina aukerarik ez....

♥ Euskera ikasten dabilzanezi lagundu gura diezu eta astean behin ordu bete libre daukazu.



eta berba egiteko prestatu!!

Hemen:

Iturriaga 55, baxu ezkerre / Aita Pernet, 9. Santutxu

☎ 94.473.54.48 / 94.473.14.60

e-posta: [asapala@euskalnet.net](mailto:asapala@euskalnet.net) /

[mahatserriberbalaguna@euskalnet.net](mailto:mahatserriberbalaguna@euskalnet.net)

Santutxu **aek**  
Euskal Eskola

**ASAPALA**  
EUSKARA ELKARTEA